



ATZERRIKO UNIBERTSITATEETAN EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA IRAKASTEKO PRESTAKUNTZA IKASTAROA (8. aldia)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2021/2022

ARLOA: Humanitateak

KREDITUAK: 5,6 kreditu ECTS (*)

MATRIKULA TASA: 350,00 euro (eta aseguru, 4 €, galdetu)

ARDURADUN AKADEMIKOA: M^a José Olaziregi eta Garbiñe Iztueta

AURKEZPENA

Hasieratik, gure helburu nagusietako bat izan da atzerriko hizkuntza gisa euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntzan ariko diren irakasle lektoreen prestakuntza osatzea. Prestakuntza hau tokiko bertako behar espezifikoetan pentsatuta diseinatu da eta postu horiek arian-arian lankidetzan hitzarmenak egiten ari garen atzerriko unibertsitate eta goi zentroetan bete nahi lituzketen goi lizentziadun eta gradudunentzat da. Lekurik balego

Ikastaro hau UPV/EHUren eta Etxepare Euskal Institutuaren arteko lankidetzan esparruan sortua da, elkarrekin antolatzeko atzerriko hizkuntza gisa euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntzan ariko diren irakasleen prestakuntza. Bi erakundeen arteko lankidetzan hitzarmena sinatzeak aukera ematen digu prestakuntza hori proposamen zehatzen bidez gauzatzeko.

Prestakuntza ikastaroan era askotariko gaiak landuko dira: hizkuntzalaritza, didaktika, metodologia, kultura eta zibilizazioa.

Ikastaro honek alderdi hauek izango ditu ardatz:

- Identifikatzea euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntzan behar diren bide didaktiko eta metodologikoak atzerriko unibertsitate eta goi zentroetan.
- Ezagutzea ikasgelan eraginkortasunez jarduteko behar diren tresnak.



ZURE BILA GABILTZA

Giza eta Gizarte Zientzietako goi-mailako graduatuei eta lizentziadunei bideratutakoa izango da, betiere hizkuntza-eskakizunak betetzen badituzte (EGA edo legezko titulazio baliokidea izatea). Hala ere, lekurik bada, Giza eta Gizarte Zientzietako 4. mailako ikasleek eta beste lizentzia edo graduetako graduatu eta lizentziadunek ere egin ahal izango dute ikastaroa, betiere honako lehentasun ordenaren arabera:

- Giza Zientzietako graduatuak
- Gizarte Zientzietako graduatuak
- Giza Zientzietako 4. mailako ikasleak
- Gizarte Zientzietako 4. mailako ikasleak
- Bestelako graduak

Parte-hartzaileen gehieneko kopurua 40koa izango da. Gutxienekoa, berriz, 24 lagunekoa.

Aurtengoan ikastaroko saio gehienak modu presentzialean emango dira eta beste batzuk telematikoan. Hala ere, egoerak hala behartuta, litekeena da osorik modu telematikoan eman behar izatea, osasun egoerak hala eskatuko balu. Edonola ere, ikasleei garaiz jakinaraziko zaie.

IKASTAROAREN PROGRAMA

[Ikastaroaren programa](#) (pdf)

IRAKASKETA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2021/10/01-etik 2021/11/27-ra

EMATEKO TOKIA: Elurreta eraikina. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea. Nieves Cano, 33. 01006 VITORIA-GASTEIZ.

Ostiraletan: 16.00etatik 20.20ra (20 minutuko atsedenarekin).

Larunbatetan: 09.15etik 13.35era (20 minutuko atsedenarekin).

HIZKUNTZA: Euskara



INFORMAZIO BULEGOA

ORGANO PROPOSATZAILEA: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

HELBIDEA: Letren Fakultatea. Unibertsitateko ibilbidea, 5 (Vitoria-Gasteiz)

TELEFONOA: 945 01 3805/ 945 01 3951

POSTA ELEKTRONIKOA: andres.sanchez@ehu.eus; (UPV/EHU)

k-galartza@etxepare.eus (ETXEPARE)

(*) ECTS **kreditu** batek 25 orduko balioa du.

Matrikula on-line egin ahal izango da. Izena emateko epea abuztuaren 16tik irailaren 15era izango da (biak barne).

Izena emateko orriarekin batera, honakoak aurkeztu beharko dira:

- NAN edo pasaportearen kopia
- Unibertsitateko tituluaren kopia
- EGA edo baliokidearen kopia

UPV/EHUn matrikulatuta ez dauden ikasleek ere ikasle-aseguru bat ordaindu beharko dute (4 €).

Ikasleek EHUKo araudiaren arabera hobariak izango dituzte, aldez aurretik eskatuta eta agiri bidez justifikatuta.

Irailaren 20an argitaratuko da onartutako eta baztertutako pertsonen zerrenda, ezarritako lehentasunen arabera ordenatuta. Onartutako pertsonen irailaren **20tik 25era** arteko epea izango dute matrikularen zenbatekoa eta, hala badagokio, transferentzia bidezko aseguru ordaintzeko, transferentzia bidez:

- KUTXABANK: ES41 2095 0292 9132 3900 1792
- Kontzeptua: Ikaslearen izen-abizenak – EUSKARA IRAKASTEKO IKASTAROA

Epe hori igarota ordainketarik egin ez duenak ikastaroa egiteko eskubidea galduko du eta zerrendaren hurrenkeran onartuko dira ordezkioak.